

KUIRTASUNAK

Unitate didaktikoa



Kuirtasunak

Nori zuzendua: 13 urtetik aurrera

Iraupen gomendatua: 3 eta 12
ordu artean, saio bat edo batzuk

Unitate didaktikoa, Josebe Iturrioz Filosofiako irakasle eta aktibista transmaribolloak EHUko *Ikus-entzunezko Komunikazio* graduako *Bideosormena eta bestelako jardura experimentalak* irakasgaiaren baitan diseinatu eta emandako saio batetik abiatuta egina.

Animatzen al zara komikiaren bidez sexu- eta genero-aniztasuna esploratzera? Proposamen honek identitateari, maitasunari eta bizitzeko eta sentitzeko modu desberdinei buruz hitz egiten duten istorio grafikoak irakurtzera, interpretatzera eta sortzera gonbidatzen zaitu.

Zer bilatzen dugu

- Sexu- eta genero-aniztasuna, eta izateko eta adierazteko modu desberdinak aitortu eta baloratzea.
- Enpatia, sormena eta talde-lana sustatzea.
- Elkarrizketa eta hausnarketarako espazioak irekitzea, istorioak irakurtzeko eta sortzeko esperientziatik abiatuta.

Baliabideak

Kuir Konstelazioak (Kuitasunak) komikia, kartulinak, arkatzak, errotulagailuak, guraizeak, ohar itsaskorrek eta sortzeko eta partekatzeko espazio bat.

Zer egingo dugu

- **Aniztasunaz eta disidentziez** hitz egiten duen komiki bat ezagutuko dugu, benetako istorio eta erreferentez betea.
- Gure buruak aurkeztuko ditugu eta tailerrera nola iritsi garen partekatuko dugu, elkar ezagutzeko jolas eta dinamiken bidez.
- Komikiko **eszenak eta pertsonaiak** aztertuko ditugu, izenburuak asmatuko ditugu eta istorio bakoitzean zer gertatzen den idatziko dugu.
- **Gure kontakizunak sortuko ditugu:** eszena berriak, istorio berriak, pertsonaia berriak.
- Ekoizpen guztiak partekatuko ditugu eta, nahi izanez gero, **argitalpen kolektibo** bat egingo dugu gure istorioak erakusteko.

Jarduera nola garatu

1. urratsa: Ongietorria eta talde girotzea

- Jardueraren aurkezpena eta azalpena.
- Aurkezpen dinamika pilotarekin: pertsona bakoitzak bere izena esaten du eta hitz batekin nola datorren partekatzen du.

2. urratsa: **Taldeen osaketa**

- Parte-hartzaileei 1 eta 2 zenbakiak txandaka esleitzen zaizkie (bat, bi, bat, bi...). Hasieran denak zirkuluan kokatzen dira.
- Koordinatzaileak aginduak ematen ditu, adibidez: “haizeak batekoak mugitzen ditu”, “haizeak bikoak mugitzen ditu” edo “haizeak guztiak mugitzen ditu”. Agindua entzutean, dagokien taldeko pertsonak lekuz aldatu behar dute zirkuluan, beste leku batean kokatuz. Mugimendu hauek hainbat aldiz errepikatzen dira, taldea nahastu dadin. Azken kokapenetik abiatuta, sortzen dira talde berriak.

3. urratsa: **Eszenen esplorazioa**

- Talde bakoitzak komikiko hainbat eszena jasotzen ditu.
- Eszenentzat izenburuak asmatu eta talde guztiekin partekatzen dituzte.

4. urratsa: **Narrazioaren analisia**

- Talde bakoitzak 2 eszena aukeratzen ditu eta paragrafo bat (5–7 lerro) idazten du zer gertatzen den eta zer interpretatzen duten azalduz.
- Talde guztiekin partekatzea.

5. urratsa: **Atsedena (15 minutu)**

6. urratsa: **Pertsonaiekin lana**

- Talde bakoitzak pertsonaiak aztertzen ditu: nortzuk diren, zer gustatzen zaien, zer egiten duten, zer identitate eta orientazio izan ditzaketen...
- Deskribapenak partekatzen dira eta ikuspegi ezberdinen eta interpretazio aniztasunaren inguruan hausnartzen da.

7. urratsa: **Ekoizpen sortzailea**

- Mini-istorio bat sortzea (4–6 bineta), komikiko egoeretatik abiatuta haien jarraipena edo egoera berria asmatuz. Talde-lan sortzailea, irudimena eta lankidetzaz sustatuz.

8. urratsa: Sozializazioa eta argitalpen kolektiboa

- Istorioen aurkezpena.
- Aukerakoa: horma-irudi bat, koaderno bat edo PDF bat sortzea talde guztien lanekin.

9. urratsa: Itxiera eta hausnarketa

- Azken galderak: zer iruditu zaizue saioa? Zer ikasi duzue edo zertaz jabetu zarete? Zein ideia edo galdera daramatzazue etxera?

Kuirtasunak

Unitate didaktikoa